

19/05/2009

Guggenheim Bilbao Museoaren "Murakami" erakusketa 241.000 bisitari izan ditu, bukatzeko bi aste geratzen direnean.

Guggenheim Bilbao Museoak otsailaren 16an inauguratu zuen "Murakami" erakusketa, baliabide anitzeko -pintura, eskultura, industri diseinua, animazioa eta moda- 90 lan baino gehiagoko aukeraketa, eta maiatzaren 31n publikoari itxiko zaio.

Erakusketak artista japoniarraren unibertso berezia aditzera ematen du, eta zabalik izan den 13 astetan 241.434 bisitari izan ditu, museoaren historian orain arte bisitari gehien izan dituen erakusketetako bat bihurtuz.